

# FAMILIENTZAKO AHOLKU BALIAGARRIAK

## 1. aholkua. **Nondik hasi?**

1. Jakin behar duzu gazteak gero eta lehenago hasten direla teknologia berriak erabiltzen. 2-3 urteko umeentzako programak ere badaude.
2. Internet ez da gune anonimoa. Interneten, beste pertsona bat zarelakoa egiteko tentazioan erortzea ohikoa da. 14 urtetik aurrera Sarean egiten dugunaren inguruko erantzukizun penala dugu.
3. Besteen iritzia errespetatu behar ditugu. Pertsona guztiak garrantzitsuak gara, eta eskubide berberak ditugu. Ez dago justifikaturik besteak iraintzea, laidotzea, mehatxatzea edo kalumniatzea. Jazarpen-egoera bakar bat ere ez da onartzen, ez Interneten, ez Saretik kanpo.
4. Besteen datuak ezin dira erabili euren baimena barik. Besteen pribatutasuna errespetatu behar da. Gainera, gogoratu ezazu 14 urtetik beherako gazteek ezin dutela baimen hori eman; beraz, euren familiari eskatu behar zaio baimen hori. (Gero eta heldu gehiagok erabiltzen dituzte sare sozialak).
5. Gure segurtasunerako pasahitz bat eskatzen digutenean, kontuan izan sendoa izateko gutxienez 8 karaktere (zenbaki, letra, letra larriak, letra xeheak) behar dituela, eta egokiena dela zerbitzu desberdinek pasahitz desberdinak izatea. Garrantzitsua da ekipo informatikoek pasahitzak automatikoki ez gogoratzea. Azkenik, oso garrantzitsua da saioei amaiera egokia ematea.
6. Egileen eta sortzaileen eskubideak errespetatzea funtsezkoa da. Sarean aurkitu ditzakegun lanen eta liburu-denda edo musika-denda batean aurkitu ditzakegun materialen legimitatea bera da.
7. Teknologia berrietan eguneratu gaitezen, gazteak mugitzen diren mundua ulertzeko.
8. Gure adingabeek lehenengo aldiz konektatu behar dutenean, utzi ditzagun argi arauak, hitz egin dezagun eta adostu ditzagun. (Denbora, erabiliko den espazio fisikoa, tresnen zentzuzko erabilera, heldu batekin batera nabigatzea...). Familia gisa, galdera honi erantzun iezaiozu: nola kudeatu nahi duzu teknologia berrien erabilera zure etxean? Eta, horren erantzuna duzunean, erantzun beste honi: nola lagunduko diegu, etxetik kanpo egiten duten erabilera arduratsua eta egokia izan dadin?
9. Legez kontrako edo bereziki desatseginak diren edukiak aurkitu ezker, jakinarazi gune horren jabeari, gaiaren inguruko erakunde espezializatuei edo, hala badagokio, agintari eskudunei.
10. Internetek konfiantzaren eta balio positiboen sustapen espazio bat izan beharko luke. Gure sen ona da prebentziorako, konfiantzarako eta segurtasunerako metodorik onena.